


## Behera egin du haurdunaldiaren berariazko eteteen kopuruak EAEko emakume gazteen artean

*EAEko 15 eta 29 urte bitarteko emakumeen haurdunaldiaren berariazko eteteen kopuruak %8 egin du behera 2007tik 2009ra.*

Otsailaren 14a **Sexu Osasunaren Munduko Eguna** dela eta, Gazteen Euskal Behatokiak **haurdunaldiaren berariazko etetei (HBE)** buruzko zenbait datu eskainiko ditu jarraian, EAEko 15 eta 29 urte bitarteko emakumeei dagozkienak.

2000tik 2007ra HBEen kopuruak arian-arian gora egin duen arren, 2007tik 2009ra %8ko **beherakada** egon da: 2007an 1.812 kasu egon ziren eta 2009an 1.680.

### HBEen bilakaera EAEn (zenbaki absolutuak)



*Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, Eusko Jaurlaritzaren Osasun eta Kontsumo Saileko Ezagutzaren Gestioko eta Ebaluazioko Zuzendaritzak emandako datuak oinarri hartuta.*

**15 eta 19 urte bitarteko neska gazteen kasu-kopurua murriztu izanari esker gertatu da beherakada hori**, hein handian. Izan ere, adin-tarte horretako tasa, 2007an, 8,3koa zen 1.000 emakumeko, eta, 2009an, 6,9koa. 20 eta 24 urte bitartekoenak ere behera egin du epe berean, eta 13,2tik 12,6ra igaro da. 25 eta 29 urte bitarteko emakumeenak, ordea, pixka bat gora egin du, 2007ko 10,4tik 2009ko 10,6ra, hain zuzen ere.

2009an 15 eta 29 urte bitarteko emakume gazteei egindako HBE guztietatik, %17 (290) 15 eta 19 urte bitartekoei egin zitzaizkien; %39 (656) 20 eta 24 urte bitartekoei, eta %44 (734) 25 eta 29 urte bitartekoei.

Lurralde historikoei dagokienez, kasuen %61 Bizkaian erregistratu ziren (1.016); Gipuzkoan %34 (578) eta Araban %5 (86).

Datuok [Gazteen Euskal Behatokiaren Adierazleen Sisteman](#) eta [Osasun eta Kontsumo Saileko webgunean](#) kontsulta daitezke.